

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Administrazioarekiko auzi errekurtsora epatzea

Arratzua-Ubarrundiako Udalak erabaki du, Alkatetzaren ekainaren 25eko 166/2019 Dekretuaren bidez, alderdi demandatu gisa agertzea administrazioarekiko auzi errekurtsuan. Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1 zenbakiko Epaitegian izapidetu zen administrazioarekiko auzi errekurtsua -290/2019-E zenbakiko prozedura laburra. Errekurtso hori R. J. B. G.k jarri zuen Udalbatzaren 2019ko martxoaren 25eko ebazpenaren aurka, zeinak ezetsi egin baitzuen arriskutsuak izan daitezkeen txakurrak babestea eta edukitzeari buruzko araudia hausteagatik zehapen prozedura hasteko erabakiaren aurka auzi-jartzaileak jarritako berraztertze errekurtsua.

Iragarki honen bidez jakinarazten zaie espedientean interesa izan lezaketenei, eta jakinarazten bederatzi egun dituztela, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aipatutako epaitegian agertu eta beren interesak aldezteko.

Dura, 2019ko uztailaren 8a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE